

10.GAIA. JUSTIZIA AUZITEGIA ETA HELEGITEAK

10.1.AUZITEGIAREN EGITURA

Europar Batasunaren Justizia Auzitegia Europar Batasunean botere judiziala hezurmamitzen duen instituzioa da.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak funtzio jurisdikzionalaren jarduna Estatu Kideen organo jurisdikzionalekin partekatzen du. Azkenengo hauek europar arauak aplikatu behar dituzte eta gainera, Europar Batasunaren zuzenbidearen epai ordinariorak dira.

Auzitegiari dagokionez urterekin eraldaketak izan ditu eta gaur egun nahiz eta auzitegiak hitz egin egiatan auzitegi ezberdinak daude.

Nizako Tratatuak izan zen Europar Batasunaren botere judizialean aldaketa garrantzitsuenak sartu zituenak, hala nola, 12 Estatu kide berrien inkorporazio berria asimilatzea eta bestetik, estatu kide berrien gorakada eta Europar Batasunari egotzitako konpetentzien emendioa (incremento) dela eta auzi kontenziosoen bolumenari aurre egiteko. Hori dela medio, Lisboako Tratatuak aldaketa gutxiago ezarri ditu, bakarrik instituzioen denominazio eta epaile eta Abokatu Generalaren izendatzearen inguruan.

(Europar Batasuneko tratatuaren 19.artikuluaren ezaugarriak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 251-281.artikuluetan jarraipena): Hor aipatzen den bezala auzitegia bera beste bi instantziaz integratuta dago: auzitegia bera "justizia auzitegiaren denominazioarekin", auzitegi orokorra (lehen izan zena lehen instantziako auzitegia; hura eratu zuten 1988.urtean) eta auzitegi berezituak praktikan bakarrik dago bat funtzionarioen inguruko auzietarako (2004an sortutakoa eta 2016an desagertutakoa, auzitegi honetakoa ziren epaileak auzitegi orokorrak xurgatu ditu).

Dakigunez erkidegoa zuzenbidezko erkidegoa dugu, ez da bakarrik integrazio ekonomikoaren bitartez sortua, zuzenbidea da integrazioaren itsasgarria; tribunalaren zeregina oso garrantzitsua izan da batez ere 60.hamarkadan nola auzitegiaren epai batzuen bitartez erkidegoaren zuzenbidearen sustapena egiztatu zutelako (Costa vs Enel, Van gend and loss...) bidea erraztu zuten eta eragin handia izan zuten erkidegoaren garapenean. Dakigunez azken zabalketaren (hedapenaren) ondoren XXI.mendean egindako hedapen horren ondoren, gauzak aldrebestu egin dira, epaile asko etorri egin direlako Europako leku askotatik eta gauzak okerrera joan dira, krisiaren ondoren eginiko edo emandako erantzunak oso dudazkoak izan direlako (eman dituzten erabakiak askotan tratatuetatik at etorri izan direlako eta tratatuak sakonki aldatu izan dituztelako). Estatu kide bakoitzak badu eskubidea epaile bat izendatzeko, epaileez gain abokatu generalak daude (Frantziako kultura juridikotik etorria; ez da fiskala baina horren antza dauka), epaileak ez dira alabeharrez epaileak izan behar, hauta dezakete edozein jurista moten artekoak, 6 urtetarako hautatuak dira, bere mandatua berrituz mugarik gabe eta Luxenburgon dago egoitza.

Ebazpenetan ez dago bozka partikularrik, Espainiako auzitegi konstituzionalean izan ahal den moduan; bai ordea ebazpenaren aurretik etortzen da abokatu generalaren irizpidea zein auzitegiak ez du zertan kontuan izan behar. Auzitegiak bere antolamendurako geletan biltzen da, izan daiteke 3ko gela, 5eko gela edo gela handia esaten dutena (hemen bilduko dira noiz estatu kide baten edo europar instituzio baten partaidetza legokenean) eta badago ere osoko bilkura (auzitegi orokorreko apelazioetaz erabakitzeke), azken instantziako epaiketetan, osoko bilkuraren emaitza beharko du 15 epaileren botoa.

Abokatu generalaren inguruan horiek izendatzeko 6 estatu kide nagusien artean egiten da hamaikatik sei abokatu generalen hautaketa (Alemania, Espainia, Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Polonia) eta beste bostak hautatuak izango dira beste 22 herrialdeen arteko zerrenda alfabetikoaren bitartez (beraz, estatu kide guztiek ez dute eskubidea abokatu generala hautatzeko).

Auzitegi orokorrean ez dago abokatu generalik eta auzitegi orokorra ere geletan biltzen da 3ko gela, 5eko gela, gela handia edo osoko bilkura eta gero lehen aipatutako auzitegi berezitua europar funtzio publikoetarako (2016an desagertua), funtzionarioek sarritan eramaten dituzte auzitara instituzioak.

Posiblea da kasazio errekurtsua eta apelazio errekurtsua egitea auzitegiaren ebazpenen aurka:

- Kasazio errekurtsua: epaian erabilitako zio juridikoen inguruan
- Apelazio errekurtsua: egiteen inguruko errekurtsua eta ez argudio juridikoen inguruan

Eurolex izeneko artxiboan epai oro daude eskura, oso ondo sistematizatu dute jurisprudentzia eta oso tresna garrantzitsua da.

10.2.HELEGITEAK

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko tratatuaren 30.artikuluari egiten dira aipamenak. Sistema konplexua dute nola batzuk konstituzio izaera dute, beste batzuk zuzenbide internazionalakoak, izaera instituzionalakoak, kontenzioso administratibokoak... mota askotako helegiteak daude. Batetik ez betetzeagatik helegiteak (hori zerikusituz zuzena du batasunarekin) eta bestetik badaukagu kuestio prejudiaziala (kasazio helegite sistemarekin du zerikusia). Izaera administratiboari dagokionez badaude anulazio, omisio eta ilegalitate eszeptzioa eta gero konstituzio izaerari loturiko helegiteak zeintzuk lirarteke estatu kide baten edo europar instituzioen arteko auziak (nori legokion eskumena, adibidez), europar instituzioen arteko auziak eta gero oinarrizko eskubide eta askatasunei buruzko auziak, nazioarteko tratatuei lotutako auziak... beraz, mota askotako helegiteak.

Helburu orokorra izango da babes judiziala bermatzea, justiziable orori eta hau da, estatu kideei, instituzioei edota pertsona fisiko edo juridiko orori. Ordura arte 20000 epai +/- eman ditu 60 urtetan auzitegiak, beraz jurisprudentzia oso zabala eta luzea aurki dezakegu.

- **Ez betetzeagatiko helegitea (recurso de incumplimento).**

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 258.artikuluana. Horixe ez betetzeagatiko auziaren oinarria, estatu kideek beharturik daudelako (nazio lurralde osoan) tratatuak betetzera, eta tratatuetan bertan oinarria duten europar instituzioen ebazpenak betetzera. Europar zuzenbideak helarazten dituen ondorioak erkidego osoan behar dira indarrean egon eta ez estatu batzuetan bai eta estatu batzuetan ez, estatu kideen kontrako helegitea dela esan dezakegu nola hauek behartzen ditu ebazpenak betetzera. Sortzen diren obligazioak edota betebeharrak etor daitezke batasuneko tratatuetatik, instituzioetatik, batasunak zinatutako nazioarteko tratatuetatik edota justizia auzitegiak emandako ebazpenetatik. Legitimazio aktiboa dute batzordeak eta estatu kideak, praktikan **Estatu Kideek Batzordeari utzi diote 258.artikuluana** ahalbidetzen dion ez betetzeagatiko helegitea paratzea Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean. Batzordeak batasunaren izenean bereganatzen du ardura Tratatuak bete daitezzen, eta honek estatu kideak auzitegira eraman ditzake. Bi fase: fase prekontenziosoa eta fase jurisdikzionala.

➤ **Fase prekontenziosoa:** Fase honetan batzordea saiatuko da auzia konpontzen auzitegira jo baino lehen, (eskakizun idazkia, irizpen arrazoitua...), beraz irekiko da epe bat auzia konpontzeko (batasunaren botere diskrezionala) eta epe hartan utziko zaio estatu kideari bere arrazoiak ematen eta generalean auzi gehienak fase prekontenzioso honetan amaitzen dira kasuen %10 amaitzen dute auzitegietan, estatu kide batzuek sarriago ez dute betetzen dagozkion betebeharrak. **Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko tratatuaren 259.artikuluana** fase prekontenziosoaren inguruko ezaugarri batzuk.

➤ **Fase jurisdikzionala: Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko tratatuaren 260.artikuluana.** Hauek moldatuz joan dira urteekin, hau da, izuna jartzeko eskubidea geroan etorri zen, hasieran helegitean ez zen agertzen baino nola estatu kide batzuek nahiz eta kondenatuak izan ez zuten sententzia betetzen, izunaren posibilitatea asmatu zuten baina nola horrela ere ez zuten betetzen estatu kide batzuk asmatu zuten izuna ordaintzen ez bazen estatu kideari dagozkion diruaren partetik kenduko zen. Oro har, estatu kideek oso formalak izan direla esan beharra dago salbuespenak salbuespen.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak determinatuko du existitzen bada edo ez nolabaiteko ez betetzea Estatu baten partetik Batasunaren ordenamendu juridikoen betebeharreko. Esan bezala, Batzordeak **apreziazio botere diskrezional** batez baliatzen da ez betetzeagatiko helegitea aurkezteko, inongo eperen menpean egonez. Hori bai, era egokian aurkeztu behar dira ez betetzearen probak, ez du balio presuntziorik.

Batzordearen helegitea aintzat hartzekoa izango da arrazoitutako irizpidean estatu kideari emandako zehaztutako epea igaro bada eta honek ez badu bere betebeharra bete.

- **Anulazio helegitea.**

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 263.artikulu**an.** Europar instituzioen jarduera kontrolatzeko bideratua dagoen helegitea. Zeintzuk dira egite inpugnagarriak: Europar kontseiluaren eta parlamentuaren kodezizio edo kooperazio prozeduraren bitartez hartutako erabakiak, Ministro Kontseiluaren erabakiak, batzorde eta banku zentralako gomendioak, europar parlamentuarenak noiz 3.batean ondorioak sortarazten dituztenean. Legitimazioa helegitera jotzeko europar parlamentu eta instituzioak eta baita ere pertsona fisiko edota juridiko orok egiaztatzen badute erabaki horiek zuzenean afektatzen dietenean izango dute; oso zaila da nola erabakiak oso zabalak dira, hau da ez direla inorengan fokalizatzen. Nortzuk izan daitezke zioak: motibazio okerra edo motibazio falta zein ere normetan lehendik agertu behar baitira motibazioak, europar norma oro motibatua izan behar da; posible litzateke ere behar litekeen kontsultazioa ez egitea (demagun parlamentuari kontsultatu behar zaiola edo erregioetako komiteari edo beste bati eta hori ez da egin; horrek bidera daiteke anulazio helegitea); baita ere oinarri juridiko okerra.

- **Omisio helegitea.**

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 265.artikulu**an.** Oraingo honetan zerbait ez egiteagatik da helegitearen zergatia eta berriro europar instituzioen omisioa kontrolatzeko; legitimazioa dute estatu kide eta europar instituzioak, pertsona fisiko eta juridiko oro baldin eta zuzenean afektaturik baleude. Bi fasetan osatzen da helegitea: fase prekontenziosoa (hemen saiatuko da konponketa batera heltzen) eta fase juridikzionala.

- **Ilegalitatearen eszepzioa.**

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 277.artikulu**an.** Bi hilabeteko epea izango litzateke eta zioak lehen aipatutakoak, motibazio eza... helegite honen bitartez saiatzen da aukerak ematen pertsona fisiko eta juridikoei prozesu batean auzitegira ekartzea helmen orokorreko inguruko baliozkotasuna plazaratzea; prozedura intzidentala izango litzateke.

- **Kalteordainei buruzko helegitea.**

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 268.artikulu**an.** Kasu honetan helegite horren bitartez gauzatzen da batasuneko instituzioek izan lezaketen ardura besteengan sortutako kalteengatik, zein ere administrazioekiko estatu kideetako ordenamenduetan dagoen helegite bera.

- **Arazo prejudizialei buruzko helegitea.**

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 267.artikuluan. Maiz erabili izan den helegitea eta horren bitartez frogatu egin dute batasunaren auzitegiaren eta estatu kideetako auzitegien arteko kolaborazioa, nola ikusten dugunez helegitearen oinarria boluntarioa delako soilik azken instantziako auzitegiek jo beharko dute, gainerako auzitegiek ez dute horrelako beharra izango, edozelan ere 60 urte hauetan boluntarioki estatu kideetako epaitegi eta auzitegiek jo izan dute batasuneko Luxemburgoko auzitegira bere iritzia jasotzeko auzia epaitu aurretik argitzeko, hau da, auzitegiek eta hein handi baten auzian leudeken partaideak horrela eskaturik europar batasuneko norma baten inguruko kezka dutelako (interpretazio edo baliotasuna) auzia erabakitzen du Luxemburgoko auzitegira galdera egingo den edo ez. Helegite horren bitartez interpretazio bakarra ezartzen da eta horrela ekiditen da herritarren artean bereizkeriarik sortzea, nola batasuneko zuzenbidea izan beharko da interpretatua modu berdinean estatu kide guztietan eta ez desberdina estatu kideetik estatu kidera. INTERPRETAZIO UNIFORMEA eta BALIOTASUN BERBERA BATASUNEKO NORMEK BATASUNEAN ZEIN ESTATU KIDEETAN. Ikusi izan dugunez zenbait kasuak bideratuak izan dira horrelako helegitearekin (Costa vs Enel, Van gend and loss...) estatu kide bakoitzeko auzitegiak eskatua bi kasutan. Beste era batetik uler dezakegu helegitea dela ere auzi handi baten inzidente prozesala, Luxemburgoko erantzunaren zain eten egingo da auziaren prozedura erantzuna jaso arte, azpimarratzeko da printzipioz ebazpena ematen duena ez dela Luxemburgoko auzitegia baizik eta estatu kideko legokeen auzitegiak.

Zuzenbide konstituzionalean ikusi bezala batzuetan gobernuari eta parlamentuari posible egiten zaio nazioarteko tratatu baten eta konstituzioaren arteko adostasunei buruzko galdetzea, oraingo honetan partaideak lirakeke batasuneko tratatuak eta nazioarteko tratatuak **Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 218.11.artikulu**an. Batasuneko tratatuak eta batasunak sina ditzakeen tratatuen artean, dudarik balego artikulu honen bitartez ahalbideratzen zaie hainbat batasuneko eta estatu kideetako instituzioei Luxenburgoko auzitegira joaten auzitegiak erabakia emateko eta auzitegiak ezetza ematen badu batasunak ezingo du tratatua sinatu nazioarteko tratatua edota batasuneko tratatuak aldatzea.